b) 2002. urtean diruz lagundutako jarduerei dagozkien gastuen jatorrizko ziurtagiriak aurkezten ez badira.

c) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, kasuan kasu, dirulaguntza emateko Ebazpenetan ezarritakoak betetzen ez badira.

d) Dirulaguntzaren kitapena egin ondoren dirua itzuli behar izanez gero, bueltatu beharreko diru kopurua ezarritako epean itzultzen ez bada.

2.– Betegabetzat jotako kasu horietan, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da, horren bitartez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik emandako dirulaguntzak bermatu eta itzularazteko modua eta, era berean, Dekretu beraz ezartzen baitira dirulaguntzon kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek errespetatu beharreko baldintza, jarraibide eta betebeharrekoak. Horretaz gain, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretuan ezarritakoa ere aplikatuko da. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Printzipio Antolatzaileen Legearen testu bateratua onartzen da.

b) La no aportación de los justificantes originales o compulsados de los gastos de las actividades subvencionadas correspondientes al año 2002.

c) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o, en su caso, de las que se establezcan en la Resolución concedente.

d) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

2.– En dichos supuestos serán de aplicación lo dispuesto en el decreto 698/1991 de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales del Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión, y lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

**Zk-3118**

AGINDUA, 2002ko maiatzaren 13koa, Kultura sailburuarena, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko deialdiari 2002ko ekitaldian ezartzeko epeak ezarri eta egokitzen dizkiona.

Euskadiko Aurrekontuen Erregimenari buruzko legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren IX. Tituluan ezarritakoaren babesean, abenduaren 26ko 367/2001 Dekretua eman zen. 367/2001 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen pentzutan emandako laguntzak eta dirulaguntzak arautzeko zenbait xedapenen indarraldia luzatzeko bidea ematen du; horri jarraituz, Jaurlaritzak eta bere sailek zein erakunde autonomoek behar diren epeak, betekizunak eta baldintzak molda ditzakete aipatutako Agindua 2002ko ekitaldian aplikatzeko.

2000ko ekitaldian, Kultura sailburuak 2000ko maiatzaren 22ko Agindua eman zuen, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautu zuena, hain zuzen ere. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 105. zenbakian argitaratu zen, 2000ko ekainaren 5ean. Honako honen bidez,

**N°-3118**

ORDEN de 13 de mayo de 2002, de la Consejera de Cultura, por la que se adapta para su aplicación durante el ejercicio 2002 la Orden por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones para la ejecución de Programas en bienes integrantes del Patrimonio Documental no Público.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 367/2001, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2002.

En el ejercicio 2000, se dictó la Orden de 22 de mayo de 2000, de la Consejera de Cultura, por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones para la ejecución de Programas en bienes integrantes del Patrimonio Documental no Público, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 105 de 5 de junio de 2000, por lo que procede la adaptación de los pla-

Agindu hori 2002ko ekitaldian aplikatu ahal izateko behar diren epeen eta baldintzen egokitzapenak egingo dira.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Eskabideak aurkezteko epea.

Publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautzen duen 2000ko maiatzaren 22ko Aginduari jarraituz, 2002ko deialdirako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*2. artikulua.–* Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak eskatu nahi dituztenek, Eranskin gisa sartutako 2000ko maiatzaren 22ko Aginduaren 6. artikuluan ezartzen den moduan egin beharko dute.

*3. artikulua.–* Diru-baliabideak

Agindu honek duen xederako, 2002 urtean 102.172 euro zuzenduko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-atalen kontura.

Kultura Sailaren beste laguntza programetarako erabilitako diru kopurutik dirua soberan gelditzen bada, 2. artikuluan adierazitako diru kopurua alda daiteke, eskatutako dirulaguntza kopurua kontuan hartuta. Kopuru hori aldatzea edo ez aldatzea dirulaguntzei buruzko erabakia hartu aurretik erabakiko da.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpen batek emango du honen berri.

XEDAPEN GEHIGARRIA

*Lehena.–* Herritar guztiek honen berri izan dezaten eta interesdunei lana errazteko, Agindu honi atxiki zaio, eranskin modura, Kultura sailburuaren 2000ko maiatzaren 22ko Agindua eta 2002 urteko ekitaldirako aurrikusitako aldaketak batzen dituen testu bategina.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaioke Kultura sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

zos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Orden durante el ejercicio 2002

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la Convocatoria de ayudas establecida por Orden de 22 mayo de 2000, por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones para la ejecución de Programas en bienes integrantes del Patrimonio Documental no Público, en el ejercicio 2002 será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden.

*Artículo 2.–* Solicitudes y documentación a presentar.

Las personas solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente, deberán dirigirlas conforme a lo dispuesto en el artículo 6 de la Orden de 22 de mayo de 2000, que se incluye como anexo.

*Artículo 3.–* Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, durante el presente ejercicio 2002, la cantidad de 102.172 euros, con cargo a las partidas presupuestarias establecidas al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas.

De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

*Primera.–* Para general conocimiento y facilitar el uso de los posibles interesados, se incorpora, como anexo, a la presente Orden, el texto resultante de refundir las previsiones efectuadas para el ejercicio 2002, al régimen general establecido por la Orden de 20 de mayo de 2000.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante

jar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*Bigarrena.–* Honako Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko maiatzaren 13a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ERANSKINA

AGINDUA, 2000ko maiatzaren 22Koa, Kultura sailburuarena, publikoa ez den ondare dokumentala osatzen duten ondasunetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak banatzeko modua arautzen duena. 2002ko ekitaldian aplikatzeko egokitua.

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Agindu honen xedea hau da: publikoak izan gabe, Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxiboetako dokumentuetan, artxibo fondoetan zein agiri bildumetan egitarauak burutzeko dirulaguntzak emateko modua arautzea, beti ere, helburua hauetakoren bat izanik:

a) Agirien kontserbazioa hobetzea.

b) Agiri multzoak antolatzea eta artxibo tratamendua hobetzea.

c) Informazioa zabaltzea, Badator Zerbitzua erabiliz.

2.– Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 56, 57 eta 58. ataletan dauden definizioak erabiliko dira artxiboetako dokumentu, artxibo fondo eta agiri bilduma kontzeptuak zehazterakoan.

*2. artikulua.–* Diru-baliabideak.

Agindu honetan ezarritako helburua betetze aldera zuzenduko den 102.172 euroko diru kopurua Euskal Autonomia Erkidegoak dituen aurrekontu orokorretan xede horretarako ezarritako aurrekontu ataletik etorriko dira, mugatzat aurrekontu-aplikazioaren baliabide ekonomikoak dituelarik.

*3. artikulua.–* Onuradunak.

Agindu honetan ezartzen diren dirulaguntzak jaso ditzaketenak, Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxiboetako dokumentuen, artxibo fondoen zein agiri bildumen jabe izanik, publikoak ez diren pertsona fisiko eta juridikoak izango dira, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 55. artikuluan ezarritakoaren arabera.

la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

*Segunda.–* La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de mayo de 2002.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO

Texto adaptado de la orden de 22 de mayo de 2000, de la Consejera de Cultura, por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones para la ejecución de Programas en bienes integrantes del Patrimonio Documental no Público.

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– La presente Orden tiene por objeto establecer el régimen de concesión de subvenciones para el desarrollo de aquellos Programas, en documentos de archivo, fondos de archivo y colecciones de documentos, de carácter no público, integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, que tengan por objeto:

a) La mejora en la conservación de la documentación.

b) La organización de los fondos de archivo y la mejora de su tratamiento archivístico.

c) La difusión de la información y su integración en el sistema de información Badator.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el número anterior, se entienden por documentos de archivo, fondos de archivo y colecciones de documentos, las definiciones contenidas, respectivamente, en los artículos 56, 57 y 58 de la Ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco.

*Artículo 2.–* Recursos Económicos.

Los recursos económicos destinados a la finalidad establecida por la presente Orden proceden de la aplicación presupuestaria, con una cuantía de 102.172 euros, señalada en los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los presupuestos, y tendrán como límite el de la disposición económica de la misma.

*Artículo 3.–* Beneficiarios.

Serán susceptibles de ser beneficiarios de las subvenciones establecidas en la presente Orden las personas físicas y jurídicas no públicas titulares de documentos de archivo, fondos de archivo y colecciones de documentos integrantes del Patrimonio Documental del Pueblo Vasco, de conformidad a lo establecido en el artículo 55 de la Ley 7/1990, de 3 de julio.

Dirulaguntzak onartzeko eta, hala badagokio, onuraduei ordaintzeko, ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere Erakunde Autonomiadunek emandako antzeko dirulaguntzaren bat dela-eta, oraindik itzulketa edo zigor prozeduraren bat izapidatzen ari bada, prozedura horri amaiera ematea.

*4. artikulua.*– Dirulaguntzen zenbatekoa eta mugak.

1.– Dirulaguntzek onuradunak aurkeztutako egitarau bakoitzari dagokionez, onartutako burutze aurrekontuaren %70a hartuko dute gehienez ere (zergak kenduta), egitarau bakoitzean diru-atal jakinetara zuzen daitekeelarik dirulaguntza.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitakoaren aurka joan gabe, egitarau bakoitzari gehienez jota eman dakiokeen diru-kopurua ez da inola ere 3.000.000 pezetakoa (18.030,36 eurokoa), baino handiagoa izango.

*5. artikulua.*– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzak, erakunde publiko zein pribatuek helburu berberaz emandako beste laguntza batzuekin bateragarriak izango dira, beti ere, guztira jasotako diru-kopuruak aurrekontu osoa gainditzen ez badu. Horrela gertatuz gero, eman beharreko dirulaguntzatik kendu egingo da dagokion kopurua, lagundutako egitarauaren kostu osoari dagokion gehienezko kopurura egokitu arte.

*6. artikulua.*– Eskabideak.

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzak jasotzeko egin beharreko eskabideak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta Kultura Sailean aurkeztuko dira behar bezala osaturik, bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko uztailaren 26ko 30/1992 Legean eskainitako bideetako edozein erabiliz. Horrekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1.– Eskatzailea pertsona fisikoa izanez gero:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Burutzekoa den egitarau bakoitza azaltzeko txostena.

c) Diruz lagunduko den egitarau bakoitzaren aurrekontua.

d) Zerga kontuak eguneratuak dituela erakusteko egiaztagiria.

e) Ordainketa burutu ahal izateko dokumentazioa edo «Datuen Alta/Hirugarren interesatua» inoiz egin ez dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioa: «Datuen Alta/Hirugarren Interesatua» fitxa, Agindu honen I. Eranskinaren ereduari jarraituz.

La concesión y, en su caso, el pago las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de estas, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 4.*– Cuantía y límite de las subvenciones.

1.– Las subvenciones cubrirán como máximo el 70% del importe (impuestos excluidos) de los gastos de ejecución del presupuesto aprobado de cada Programa presentado a efectos de subvención, pudiéndose imputar la misma a partidas concretas de cada Programa.

2.– No obstante lo señalado en el número anterior, en ningún caso, la subvención por Programa podrá superar la cantidad de 3.000.000 de pesetas (18.030, 36 euros).

*Artículo 5.*– Compatibilidad de las subvenciones.

Las subvenciones establecidas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o privados, para el mismo objeto, sin que, en ningún caso, pueda existir sobrefinanciación, procediendo, en tal supuesto, la reducción de la subvención a conceder hasta el límite del costo total del Programa subvencionado.

*Artículo 6.*– Solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones establecidas en la presente Orden se dirigirán al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, y se presentarán debidamente cumplimentadas, en el Departamento de Cultura, bien directamente, bien por cualesquiera de los medios previstos en la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, acompañadas de la documentación siguiente:

1.– En el supuesto que el solicitante fuera persona física:

a) Fotocopia del D.N.I. del solicitante.

b) Memoria descriptiva de cada Programa a ejecutar.

c) Presupuesto de cada Programa presentado a subvención.

d) Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias.

e) Documentación para el libramiento de pagos o documentación a aportar por aquellos que no estén dados de «Alta de datos/tercero Interesado»: ficha de «Alta de datos/tercero interesado», según el modelo del Anexo I de la presente Orden.

2.– Eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero, atal honen 1. zenbakiko b), c), d) eta e) puntuetan eskatutakoaz gainera, honako dokumentazio hau ere bai:

a) Eskabidea egin duen erakundeari buruzko argibideak erakutsiko dituen dokumentazioa. Horretarako, eraketa agiriaren kopia edo, hala badagokio, Estatutuen arauak eta, hala badagokio, dagozkion erroldetan izena emanda duela erakusteko egiaztagiria.

b) Pertsona juridikoaren izenean jardunez, eskabidea sinatu duen pertsona fisikoaren NANren fotokopia eta haren ordezkari izateko baimena erakusten duen egiaztagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela erakusteko egiaztagiria.

3.– Aurreko zenbakietan adierazitako dokumentazioaz gainera, dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako egitarau bakoitzerako eskatutako dirulaguntzen zerrenda ere aurkeztu beharko da, erakunde publiko zein pribatuaren izena eta dirulaguntza-eskabideen egoera aipatuta (ezetsiak, erantzunaren zain, emanak eta diru-kopuruak). Horrelakorik egon ezean, dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako egitarauetarako beste inongo laguntzarik eskatu ez dela egiaztatzeko jakinarazpena.

*7. artikulua.*– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau indarrean jartzen den egunetik hasita.

8. *artikulua.*– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Agindu honen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztutako eskabidea eta gainerako dokumentazioa Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroak (Irargi) aztertuko du, eta aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea dela edo akatsak dituela ikusiz gero, horren berri emango dio eskabidea egin duenari, eta hamar egun balioduneko epea emango dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko. Epe hori bukatuta dokumentazioa era egokian zuzentzen ez bada, interesatuak atzera egin duela ulertuko da eta, aldez aurretik, ebazpena emango da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

*9. artikulua.*– Eskabideak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Aurkeztutako egitarauen eskabideak aukeratzerakoan eta beren kopuruak zehazterakoan, ondoko ezaugarriak betetzen direnentz begiratuko da, adierazten diren baremoen arabera:

a) Egitarau bakoitzaren sendotasun zientifikoa (%40).

2.– En el supuesto que el solicitante sea persona jurídica, además de la documentación señalada en los apartados b), c), d), y e) del número 1 del presente artículo, la siguiente:

a) Documentación acreditativa de la personalidad del solicitante, aportando, a tal efecto, copia de la escritura de constitución o, en su caso, de los Estatutos reguladores, así como, en su caso, acreditación de su inscripción en los Registros correspondientes.

b) Fotocopia del D.N.I. de la persona física, firmante de la solicitud, que ejerza la representación legal de la jurídica, así como, acreditación del poder de representación que ejerza.

c) Certificación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

3.– Además de la documentación señalada en los números anteriores, los solicitantes deberán aportar la relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas para cada Programa presentado a subvención, las Entidades públicas o privadas a que se hayan presentado, así como el estado de las mismas, (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En el caso contrario, documento declarativo de no haber solicitado ninguna otra ayuda para cada Programa presentado a subvención.

*Artículo 7.*– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día que surta efectos la presente Orden.

*Artículo 8.*– Subsanación de defectos de las solicitudes.

En el supuesto de que, analizada la solicitud y demás documentación requerida de conformidad a lo previsto en el artículo 6.º de la presente Orden por la Dirección de Patrimonio Cultural, a través de Irargi (Centro de Patrimonio Documental de Euskadi), se observara la existencia de defectos o la documentación fuera incompleta, se pondrán en conocimiento del solicitante dichas circunstancias otorgándose un plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente al de recepción de la notificación correspondiente, para su subsanación, transcurrido el cual sin haberse procedido a la referida subsanación se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

*Artículo 9.*– Criterios de selección y valoración de las solicitudes.

Para la selección de solicitudes, de los Programas presentados y determinación de la cuantía de cada subvención a conceder, se atenderá a la concurrencia de las siguientes características y según los baremos que se señalan:

a) La solidez científica de cada Programa (40%).

b) Egitarau bakoitza epe luzerako jarduera baten osagai izatea, bai aurretiaz egindakoari jarraipena emateko, bai egitarau horrekin proiektuari hasiera emateko (%20).

c) Artxiboa osatzen duen material dokumentalaren berri emateko borondatea (%20).

d) Euskarari dagokionez, egitarauaren barruan standar deskribatzaileak edo interes artxibistikoa izan dezaketen beste osagai batzuk egotea (%15).

e) Egitarau bakoitzaren errentagarritasun zientifikorik hoberena bermatzeko beste edozein osagai (%5).

*10. artikulua.–* Eskabide azterketa eta Erabaki Proposamena.

1.– Kalifikazio Batzordeari dagokio onartutako eskabideak Agindu honen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera aztertu eta ebaluatzea, bai eta dagokion Erabaki Proposamena osatu eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari igortzea ere. Hala badagokio, onuradun bakoitzari egokitutako diru-kopurua ere azalduko da bertan eta, era berean, emandako dirulaguntza behar bezala erabiliko dela bermatzeko egoki iritzitako bestelako betebeharrak ere bai.

2.– Kalifikazio Batzordea era honetara osatuko da:

a) Kultura Ondarearen zuzendari andrea, edo berak izendatutako pertsona. Batzordeburu izango da eta botu erabakiorra izango du berdinketa gertatuz gero.

b) Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa - Irargiko bi teknikari, Kultura Ondarearen Zuzendaritzakoak, Kultura Ondarearen zuzendariak izendatuak. Horietako bat batzordeko idazkari lanetan arituko da.

c) Euskera Planen Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua.

*11. artikulua.–* Erabakia.

1.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari dagokio, osatutako Erabaki Proposamena ikusita, aurkeztutako eskabideei buruzko Erabakia hartzea. Erabakiak hilabeteko epean hartuko dira, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita.

Aurreko lerrokadan esanak esanda ere, Agindu honen 8. artikuluan adierazitakoa gertatuz gero, ebazpena emateko epea etenda geratuko da tramiteak behar duen beste denboraz, jakinarazpena jasotzen den eguna eta erantzuteko epea kontuan hartuta.

b) La integración de cada Programa en una actuación a largo plazo, sea ésta previa a su presentación o se pretenda iniciarla con aquél (20%).

c) La voluntad de difusión de los fondos documentales que integren el archivo (20%).

d) La inclusión dentro del Programa de elementos que potencien el desarrollo de estándares descriptivos o cualesquier otro elemento de interés archivístico en euskera (15%).

e) Cualquier otro elemento que garantice las mejores perspectivas en la rentabilidad científica de cada Programa (5%).

*Artículo 10.–* Análisis de la solicitud y Propuesta de Resolución.

1.– Corresponderá a una Comisión de Calificación el examen y evaluación de las solicitudes presentadas, de conformidad a los criterios establecidos en el artículo 9 de la presente Orden, así como la elaboración y elevación al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes de la Propuesta de Resolución correspondiente, la cual, en su caso, contendrá la cuantía de la subvención por beneficiario, el destino de la subvención, así como, en su caso, cuantas condiciones se estimen necesarias en orden a garantizar el correcto destino de las subvenciones concedidas.

2.– La Comisión de Calificación estará compuesta por:

a) La Ilma. Sra. Directora de Patrimonio Cultural, o persona en quien delegue, que ejercerá las funciones de presidente de la Comisión y dirimirá, con voto de calidad, los empates que pudieran producirse.

b) Dos técnicos de Irargi - Centro de Patrimonio Documental de Euskadi, de la Dirección de Patrimonio Cultural, uno de los cuales actuará como Secretario de la Comisión, y que serán nombrados por la Ilma. Sra. Directora de Patrimonio Cultural.

c) Un Técnico de la Dirección de Planes de Euskera en las Administraciones Públicas, designado por la Viceconsejería de Política Lingüística.

*Artículo 11.–* Resolución de las solicitudes.

1.– Corresponderá al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista de la Propuesta de Resolución elaborada, la Resolución de las solicitudes presentadas. Esta será dictada y notificada a los interesados en el plazo máximo de un mes, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

No obstante lo dispuesto en el párrafo precedente, cuando fuere de aplicación lo previsto en el artículo 8 de la presente Orden, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para su contestación.

2.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa bada, Agindu honen 10.1 artikuluan ezarritako jarraibideak errespetatuko dira.

*12. artikulua.*– Dirulaguntzaren ordainketa.

Ordainketa honako modu honetara burutuko da:

a) Egitarauari emandako dirulaguntzaren %75a, erabakia hartu eta hurrengo hilabetean.

b) Gainerako %25era artekoa, hurrengo artikuluan ezarritako dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren, bertan erakutsitakoaren arabera.

*13. artikulua.*– Dirulaguntzaren justifikazioa eta kitaketa.

1.– Agindu honetan adierazitako dirulaguntzak jaso dituztenek, diruz lagundutako jarduerak bukatu eta ondorengo bi hilabeteetan eta, beti ere, 2002ko otsailaren 1a baino lehenago, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Diruz lagunduta burutu den egitarau bakoitzari buruzko txosten zehatza.

b) Diruz lagundutako egitarau bakoitza burutzean izandako gastuei dagozkien egiaztagiriak, jatorrizko fakturak zein fotokopia konpultsatuak.

c) Diruz lagundutako egitaraua edo proiektua burutzerakoan sortutako material zientifikoak (zerrendak, katalogoak, etab.), halakorik baldin badago behintzat.

d) Eskabidea aurkezteko momentuan hartuko zutenik jakin ez edo adierazi gabe geratu eta ondoren xede berberaz jasotako gainerako laguntza guztien aipamena.

2.– Aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Kitapen Erabakia hartuko du eta, hala badagokio, ordainduko den dirulaguntzaren azken egokitzapena egingo. Era berean, ordurako ordainduta dagoen dirulaguntzatik zein dirukopuru itzuli behar den zehaztuko du, itzuli behar izatea gertatuz gero, dela aldi berean beste laguntza eta dirulaguntzaren bat jaso delako edo dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetakoren bat aldatu delako. Hori gertatzen bada, bi hilabeteko epea emango da, Kitapen Erabakiaren berri ematen den egunetik hasita.

*14. artikulua.*– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honen bidez arautako dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunek honako betebehar hauek dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza ematen zaiela jakinarazteko gutuna jaso eta ha-

2.– La Resolución será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y, cuando sea positiva, contendrá las determinaciones señaladas en el artículo 10.1 de la presente Orden.

*Artículo 12.*– Pago de la subvención.

El pago de la subvención se realizará de la forma siguiente:

a) El 75% de la subvención concedida por Programa, dentro del mes siguiente al vencimiento del plazo de aceptación establecido en el art. 14.

b) Hasta el 25% restante, previa la recepción y verificación de la documentación establecida en el artículo siguiente y en función de la misma.

*Artículo 13.*– Justificación y liquidación de la subvención.

1.– Los beneficiarios de las subvenciones establecidas en la presente Orden deberán presentar, dentro de los dos meses siguientes al de finalización de las actividades subvencionadas, y en todo caso, con anterioridad al 1 de febrero del año 2002, la documentación siguiente:

a) Memoria detallada de cada Programa realizado y subvencionado.

b) Documentación justificativa, originales o fotocopias compulsadas, de los gastos de realización de cada Programa subvencionado así como balance de ingresos y gastos.

c) En su caso, materiales científicos (inventarios, catálogos, etc..) producidos en el desarrollo de cada Programa o Proyecto subvencionado.

d) Relación de cualesquiera otras ayudas con destino al mismo objeto, de cuya efectividad no se tuviese conocimiento en el momento de presentación de la solicitud de la subvención que esta Orden establece.

2.– A la vista de la documentación aportada, el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes procederá a dictar la oportuna Resolución de Liquidación, en la que, en su caso, realizará el ajuste final de la subvención a abonar. De igual modo, en su caso, señalará la cuantía de la subvención ya abonada cuyo reintegro procede, bien sea por la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas, bien por cualquier alteración que pudiera haber acaecido en las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de esta, otorgando, en estos supuestos, un plazo de dos meses, a contar desde el día de recepción de la Resolución de Liquidación, para efectuarlo.

*Artículo 14.*– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recep-

mabost eguneko epean pertsona edo entitate onuradunek ez badiote dirulaguntzari espreski eta idatziz uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman zaien helbururako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzei buruz haiek eskatutako informazioa ematea.

*15. artikulua.–* Diruz lagundutako egitarauen jarraipena.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak diruz lagundutako egitaraua nola burutzen ari den begira dezake eta, horretarako, artxibategietan sartzeko modua izateaz batera, nahi beste argibide eskatzeko eskubidea ere izango du.

*16. artikulua.–* Baldintzak ez betetzea.

1.– Betegabetzat joko dira honako hauek:

a) Jasotako dirulaguntzak, osorik zein zatika, Agindu honetan adierazi bezala onartutako jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, dagokion kasuan, dirulaguntza emateko Erabakian ezarritakoak ez betetzea.

c) Hala badagokio, dirulaguntzaren Kitapen Erabakian zehaztutako diru-kopurua itzultzeko emandako epe barruan ez itzultzea.

d) Diruz lagundutako egitarauan aldaketak egitea, aldaketa horiek Kultura Ondarearen Zuzendaritzari aurretiaz jakinarazi gabe eta haren baimenik gabe eginez gero.

2.– Artikulu honen aurreko zenbakian betegabetzat jotako puntuetakoren bat gertatzen dela egiaztatuz gero, jasotako diru guztia eta horri dagozkion interes legalak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

ción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las personas/entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

*Artículo 15.–* Seguimiento de los Programas subvencionados.

La Dirección de Patrimonio Cultural podrá inspeccionar la ejecución de los Programas subvencionados y, a dichos efectos, acceder a los lugares de realización de los referidos Programas, así como requerir cuanta información estime conveniente.

*Artículo 16.–* Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La aplicación total o parcial de las subvenciones percibidas para actividades distintas de las previstas en la presente Orden.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o, en su caso, de las que se establezcan en la Resolución concedente.

c) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación de la subvención, en el plazo para ello

d) Las modificaciones en cada Programa subvencionado que no hubieran sido presentadas y autorizadas por la Dirección de Patrimonio Cultural.

2.– La constatación de la existencia de alguno de los supuestos contemplados en el número anterior del presente artículo determinará, en los términos y previo el cumplimiento de lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

I. ERANSKINA / ANEXO I

HIRUGARRENAREN DATUEN ALTA / *ALTA DE DATOS TERCERO INTERESADO (*)*
HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK / *DATOS IDENTIFICACIÓN DEL TERCERO*

IFZ edo NAN / *NIF o DNI.* (1) ..........................................................................................................
Entitatearen izendapena edo izen-deiturak / *Denominación de la entidad o nombre y apellidos* ..................................
..........................................................................................................................................

HELBIDERATZE-DATUAK / *DATOS DE DOMICILIACIÓN*

Kalea, Zkia., Solairua
*Calle, N.º, Piso* ..........................................................................................................................
Herria
*Localidad* .....................................................................................................................................
Lurraldea
*Provincia* .....................................................................................................................................
Udal Kodea Posta-Kodea
*Código de Población*.................................................... *Código Postal* ..........................................

BANKETXE EDO AURREZKI ENTITATEAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS O DE LA ENTIDAD DE AHORRO (3)*

Banketxea edo Aurrezki Entitatea / *Banco o Entidad Bancaria* □□□□
Agentzia / *Agencia.* □□□□
K.D./*C.D.* □□
Kontu zkia. / *N.º cuenta* □□□□□□□□□□

Jabea / *Titular* ..............................................................................................................................

| Bankuaren adostasuna<br>*Conforme banco* | Hirugarrenaren adostasuna<br>*Conforme tercero* | Sailaren onespena<br>*V.º B.º Departamento* | Kontabilitatearen onespena<br>*V.º B.º Contabilidad* |
|---|---|---|---|
| Sinadura eta Zigilua<br>*Sello y firma* | Sinadura eta Zigilua<br>*Sello y firma* | Baimenduriko sinadura<br>*Firma autoriziada* | Baimenduriko sinadura<br>*Firma autoriziada* |

(*) Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntzarik inoiz jaso ez dutenek bete beharreko inprimakia / *Impreso a rellenar por aquellos peticionarios que no hayan recibido nunca subvención alguna del Gobierno Vasco*

Argibideak / *Observaciones:*

(1) Erantsi fitxa honi Identifikazio Fiskalerako Txartelaren fotokopia edo Nortasun Agiri Nazionalarena. / *Debe adjuntarse fotocopia de laTarjeta de Identificación Fiscal o, en su caso, del Documento Nacional de Identidad.*

(2) Administrazioak bete beharrekoa / *A rellenar por la Administración.*

(3) Bankuak edo Aurrezki Entitateak bete beharrekoa / *A cumplimentar por el Banco o Entidad de Ahorro.*

OHARRA:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ondokoa adierazi nahi dizu: eranskin honetan jarri dituzun datu pertsonalak, Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak erabiliko du, bakarrik, berak sustatutako dirulaguntzak kudeatzeko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

NOTA:

La Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este anexo van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Patrimonio Cultural responsable de dicho fichero, C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-3119

107/2002 DEKRETUA, maiatzaren 14koa, «Altzoko Irakaskuntza Ekipamendu Komunitariorako Sistema Orokorraren esparru berriaren» eraginpean dauden ondasunak eta eskubideak Altzoko Udalak, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako, lehenbailehen okupatu behar dituela adierazten duena.

Altzoko Udalaren 2002ko urtarrilaren 17ko Osoko Bilkuraren Erabaki bidez, «Altzoko Irakaskuntza Ekipamendu Komunitariorako Sistema Orokorraren esparru berriaren» eraginpean dauden ondasunak eta eskubideak hasiera batean jendaurrean jarri ziren, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako. Ondoren, 2002ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Altzoko Udalak Eusko Jaurlaritzari nahitaezko desjabetzearen eraginpean dauden ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat adieraz ditzan eskatzea erabaki zen, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluak ezarritakoaren arabera.

Lehenbailehen okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak banan-banan jarrita eta xehatuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan. Zerrenda horretan ondasunak eta eskubideak zein diren jakiteko behar besteko datu biltzen dira. Zerrenda jendaurrean jarri zen zegokion garaian, arrazoibide-idazki batzuk aurkeztu zitzaizkion eta administrazio-espedientean zehazten denaren arabera ebatzi ziren.

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-3119

DECRETO 107/2002, de 14 de mayo de 2002, por el que se declara de urgencia la ocupación por el Ayuntamiento de Altzo, a efectos de expropiación forzosa de los bienes y derechos afectados por el «nuevo ámbito del sistema general de equipamiento comunitario docente en Altzo».

Por Acuerdo del Pleno Municipal del Ayuntamiento de Altzo de 17 de enero de 2002, se sometieron inicialmente a información pública, a efectos de expropiación forzosa, los bienes y derechos afectados por el «nuevo ámbito del Sistema General de Equipamiento Comunitario Docente en Altzo». Posteriormente, el Ayuntamiento de Altzo, en fecha 6 de marzo de 2002, acordó solicitar ante el Gobierno Vasco la declaración de urgente ocupación de los bienes y derechos afectados por la expropiación forzosa, al amparo de lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

Los bienes y derechos a los que se concreta la declaración de urgente ocupación han quedado determinados e individualizados con los datos suficientes para su identificación en la relación confeccionada al efecto y que obra en el expediente, la cual, en su momento, fue sometida a información pública, habiéndose presentado un escrito de alegaciones que fue resuelto en la forma que consta en el expediente administrativo.